



219

ALEA

arabako aldizkaria

IXONE FERNANDEZ DE LABASTIDA

**"OSO EGUNEKOAK DIRA
BARANDIARANEN IKASKETAK
ETA EKARPENAK"**

ZEURE

B

PLANA

**BASKE
PENSIO
NES**

BANAKAKO BGAEa
Kutxabank SA
Bazkide
sustatzailea.
Kutxabank
Gestión IKESK
SAU Ondare
Kudeatzailea.

%0ko MAILEGUA BASKEPENSIONESEEN AURREZTEKO

%0ko MAILEGUA

Irekitze- eta
ezeztatze-komisioa: %0.

Finantzatu beharreko
gutxieneko diru-kopurua:
2.400 €.

Adibidea: 3.000 euroko
mailegua, 12 hilabeterako eta
hileroko 250 euroko kuota.

Irekitze- eta ezeztatze-
komisioa %0 da; UTB %0a da
eta ITN ere %0.

Zordundutako zenbateko
osoa: 3.000 €.

Baskepensiones Banakako
BGAEren plan hauetara
egindako ekarpenetarako:

Baskepensiones 15,

Baskepensiones 30,

Baskepensiones 60 eta

Baskepensiones Burtsa Globala.

Kanpainaren azken eguna:

2019/12/31.

kutxabank



ALEA 219

2019-12-13 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA: MIRIAN BITERI

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** EHUko DNA bankua, biziaren sekretuak argitzeko tresna.
- 10 **Protagonista.** Ixone Fernandez de Labastida, Jose Miguel de Barandiaran Fundazioko presidentea.
- 14 **Iritzia.** Irati Maraño, 'Greta'.
- 16 **Irudia.** Zazpi idazle arabarren pasartean irakurraldia.
- 18 **Gizartea.** Iñaki Lopez de Foronda, Etxebizitza Sindikatua.
- 20 **Datuak eta laburrak.**
- 22 **Kultura.** Egunean Behin euskarazko jokoa.
- 24 **Gizartea.** Jon Maia olibari bihurtu da.
- 26 **Gure Bazterrak.** Urriald, fantasiako piztiaren eremua
- 28 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugartte

Juanma Gallego

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Irati Maraño.

Zaindu behar den altxorrak gene du izena

SGIker Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrek kudeatuta, Gasteizko Lascaray ikergunean dago EHuko DNA bankua. Zientzialariek haien ikerketetarako behar dituzten DNA laginak biltzen dira bertan. Biziaren sekretuak argitzeko bidea errazten dute genoma puska horiek. Testua eta argazkiak: **Juanma Gallego**.


ATGC. Horiek dira, funtsean, den-dena antolatzen duten gakoak. Hizki horien arteko konbinaketek zehazten dute bizirik dagoen guztia nolakoa izan behar den. Bakterio txikienetatik hasita eta Lurra inoiz zapaldu duten animaliarik handienetara, horiek guztiek izan dituzte — eta badituzte— haien zelula guztien erraietan lau hizkirekin osatutako gakoak. Adenina, timina, guanina eta zitosina izeneko molekulak daude hizki horien atzean. Zehatzak izan nahi badugu, azido desoxirribonukleikoaren osaketan parte hartzen duten base nitrogenatuak direla esan beharra dago. Baina haien garrantziaren jabe izateko, genomaren adreiluak direla esatearekin nahikoa zaigu. Adreilu horietan oinarrituta, RNA molekularen bitartez eramaten da informazioa zeluletara, bertan beharrezkoak diren proteinak sortzeko. Bizitzaren dantza, hein handi batean, horretan abiatzen da.

Genomaren inguruko ezagutza edukitzeak izugarriko abantaila ekarri dio gizatiari, eta egunero egunero ezagutza horrek bizitzak hobetzen eta salbatzen ditu. Etorkizunean irekitzen diren aukerak are izugarriagoak dira. Horregatik, material genetikoak gordetzea eta zaintzea ezinbestekoa da, bai orain egiten diren ikerketak zein etorkizunean egingo direnak burutu egin ahal izateko.

Gurean, eta ikerketari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitateko DNA bankua da erreferentzia nagusia. Gasteizen kokatuta, EHuko SGIker Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrek kudeatzen dute azpiegitura. Maite Alvarez biokimikariak du bankua zaintzeko eta

Lagin gehienak tenperatura baxuetan mantendu behar dituzte, iraun dezaten.





Software batek lagin batean dagoen DNA zuzenean ikusteko aukera ematen du.

DNA AISE ZABALTZEN DA, ETA HORREGATIK PROTOKOLO ZUHURRAK BEHARREZKOAK DIRA, KUTSADURA EKIDITEKO

IKERTZAILE BATEK URTEAK EMAN DITZAKE LAGINAK ESKURATZEN, BAINA DNA BANKUEK HORI EKIDITEN DUTE

kudeatzeko ardura, eta bertako zirrikitu guztiak ondo ezagutzen ditu. Leku batetik bestera aise mugitzen da, baina, bertako nagusia izanda ere, bada gela bat non sartzeko aukerarik ez duen. *Sarrera mugatua - DNAa* agertzen da idatzita atean. "DNAa horrek antzinako DNA esan nahi du. Historiaurreko hezurretako laginak aztertu ohi dituzte gela horretan, eta lagin horiek erraz kutsa litezke. Beraz, ikerketa horretan ari diren ikertzaileak baino ezin dira sartu aretoan", azaldu du Alvarezek. Hezurrei dagokienez, historiaurreaz gain, azken

urteetan EHUko BIOMICs taldekoak batez ere memoria historikoaren inguruko ikerketekin dabiltzala gaineratu du biokimikariak.

Protokolo estuak

Ulertzekoa da kontuz ibiltzeko arreta hori. Izan ere, DNA aise zabaltzen da, eta protokolo txarrekin egindako ikerketa batek guztiz honda dezake genomaren azterketan oinarritutako aurkikuntza potentzial bat. Horregatik, gero eta gehiago, hainbat aztarnategitan arkeologoen eskularruekin, maskarekin, txanoekin eta jantzi bereziekin ari dira, aztarnategi horretan antzinako DNAREN zantzuak egon daitezkeen susmoa dagoen kasuetan bederen.

Bankuan ere protokolo zuhurak jarraitu behar dituzte, ibilbide zehatz baten arabera. "Laborategi hauetan lehen prozesatzeak egiten dira, eta, lagin motaren arabera, gero dagokion laborategira joango da. Baina lagin horren norabideak bakarria izan behar du. Behin hemendik aterata, ez da bueltatzen", argitu du adituak.

Prozesatze laborategiak ezagutu ondoren, bankuan bertan sartzeko ordua da. Hondoko soina berezia dago gelan: etengabeko elikatze-iturriek sortutakoa da. Argindarrak huts eginez gero, laginak hondatu ez daitezkeen beharrezkoak dira segurtasun sistema horiek. Lehen itxura batean bederen, bankua ez da oso handia, baina jakina DNA txikia dela. Bertan 5.000 lagin inguru gordetzen dituzte. DNA motaren arabera, tenperatura desberdin batean kontserbatzen dute, eta, horregatik, hozkailu desberdinak dituzte. Batzuk giro-tenperaturan gorde badaitezke ere, gehienak $-20\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ra daude gordeta, eta beste batzuk $-150\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ra. Tenperaturez gain, gaika ere antolatuta daude, baina antolaketa hori ikerketa lerroen arabera da: laktosa, Gerra Zibila, populazioak, animaliak...

Ikerketa horietan dabil bereziki BIOMICs taldeko ikertzaile nagusi Marian Martinez de Pancorbok zuzentzen duen taldea. Biologia Zelularreko katedraduna, DNA bankuaren aholkularia da, eta lotura estua du azpiegiturarekin. Horrelako tresna bat edukitzeak ikertzaileei suposatzen dien abantaila nabarmendu du Martinez de



Laginak bankutik ateratzeko, ikertzaileek protokolo bat jarraitu behar dute.

Pancorbok. "Pentsa, ikertzaile batek urtebete edo urte gehiago eman ditzake bere ikerketa lanetarako laginak hartzen. Baina horiek aurretik bilduta badaude biobanku batean, hilabete bat nahikoa izango da horiek lortzeko". Kasu horretan, ikertzaileak eskaera bat egin behar du, laginak zertan erabiliko dituen azalduz, eta bioetika batzorde baten bermea erantsi. Laginen jatorriaren arabera, ordea, desberdina da prozesua. "Berez, biobanku bera eta ikerketa taldeek jasotzen dituzten bildumak bereizi behar ditugu. Biobankuaren kasuan, lagin horiek beste ikertzaile bati utzi ahal zaizkio, beti ere irizpide etikoen babesean. Ikerketa taldeek jasotako bildumen kasuan, berriz, horiek ezin dira utzi. Soilik ikerketa taldeen arteko kolaborazioan erabil daitezke. Giza-laginak direnean, lagin hori eman zuten lagunek sinatutako baimen informatuan adierazi zituzten arloetan besterik ezin dira erabili".

Bat-bateko emaitzak

Laginen sarrera eta irteera ez ezik, den-dena oso zainduta dagoela erantsi du Maite Alvarezek. "Informazio guztia giltzapean dago, alarmarekin, eta suaren aurkako armairuetan gordeta. Leku batean, onarpenak daude, datu pertsonalekin; eta, beste leku batean, galdetegiak. Horietan jasotzen dira norberaren leinua, jaiolekua, osasun aurrekariak, bizi-ohiturak eta abarrekoak".

Materiala biltzeaz gain, bankuan genomikari lotutako bestelako zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta horietako batean ari zen Alvarez ALEAren bisita jaso duenean. Ordenagailuaren pantailan azaltzen dira gora eta behera doazen marra koloredunak. Horiek lortzeko, aurretik, lagina duen xafla txiki bat sartu du alboko makina batean. Argi berezi baten bitartez, DNA zati guztiak identifikatzeko gai da tramankulua. "Beitu, hemen aldaera bat dago. Adenina bat eta guanina bat, bata bestearen alboan. Tira, nik datu gordinak besterik ez ditut ikusten, eta ez dakit norena den DNA hau. Baina gizaki baten DNA izango balitz, hau polimorfismo baten adierazle izan zitekeen", azaldu du Alvarezek pantaila batean biziaren sekretuak ikusteko gaitasunak ematen duen ziurtasunarekin. ■■■

31

hogeita
hama
urte **ika**

Gasteiz euskalduntzen

gasteiz.ikaeuskaltegiak.eus

GASTEIZ

Errege-erregina
Katolikoak 15 C
945 288 922

ZALDIARAN

Zaldiaran pl. 15-16
945 244 905

ARATZ

Adriano VI.a 18
945 154 341

euskara
errazago
egiltzen **ika**

Ikerkuntzak beharrezkoa duen lehengaia

Mundu oso bat abiatzen da DNA bankuetatik, eta, ondorioz, ikerketa lerro ugari sortu dira horren inguruan: populazioen joan-etorriak, ahaidetasun azterketak, kriminalistika arloko ikerketak edota medikuntza bera dira horietako batzuk. BIOMICS ikerketa taldean bankuan bildutako laginak askotan baliatu dituzte lerro horiek aurrera eramateko. "Berdin-berdinak diren bikiak bereizi ahal izatea da lerro horietako bat", azaldu du Martinez de Pancorbok. "Orain arte horiek bereiztea ia ezinezkoa zen, baina halako kasuetan bereizgarri izango diren markatzaile genetikoak bilatzen aritu gara, modu horretan bata bestearengandik desberdinu ahal izateko".

Dementia frontotenporala gaitzari aurre egitea erraztea helburu duen ikerketa batean egindako ekarpena ere gogoan du katedradunak. "Katalunian oso ohikoa den mutazio baten jatorria argitu nahi izan du proiektu horrek. Gure bankuan bildutako kontrol-lagin osasuntsuak erabili dira, eta baita Frantzia eta Italia eskuratutako laginak ere". Biomedikuntzatik harago, Mediterraneoan egon den populazioen harremana ere agerian utzi zuen ikerketak.

Kriminalistikari begira, erretratu robotak egiteko proiektu bat izan dute taldean. Modu horretan, eta lagin batean abiatuta, norbanako baten ezaugarri fisikoak igartzeko aukerak aztertu



Marian Martinez de Pancorbo eta Maite Alvarez adituak. J. G.

dituzte: adina, altuera, gorpuzkera, begietako kolorea... "Hiru urteko proiektua izan zen, oso interesgarria. Horretan, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Institutuaren laguntza izan genuen. Autopsietan bildutako laginak erabili genituen".

Epigenetikaren alorrean irekitzen diren aukerak ere azpimarratu ditu Martinez de Pancorbok. Azken urteetan genetikaren mundua irauli duen diziplina horrek

**DNA ERABILITA,
ERRETRATU ROBOTAK
EGITEKO LEHENENGO
SAIAKERAK EGIN DIRA**


ingurumenak berak geneetan izan dezakeen eragina aztertzen du. Horretarako baina, beharrezkoa da norbanako bakoitzetik ahalik eta lagin sortarik handiena izatea: odola, listua, azala, muskulua, garuna... hori, noski, autopsietan baino ezin da eskuratu. "Orain, adibidez, bihotz laginekin bat-bateko heriotza ikertzen ari gara. Baina hori egitea posible da bilduma hori badagoelako, bestela oso zaila izango litzateke", nabarmendu du adituak. "Horregatik dira hain garrantzitsuak biobankuak". Hurrengo erronketako bat populazio afrikarren DNA laginak lortzea da, batez ere laktosarekiko intolerantziari buruzko ikerketak burutzeko.

abenduaren 9tik 15era arte

**ELIKAGAI-XAHUKETA PREBENITZEKO
ETA MURRIZTEKO KANPAINA**

Elikagai

xahuketarik *EZ*



**Zure platera zentzuz bete
eta elikagaien xahuketa saihestu**

"Araba nahiko ahaztuta egon da euskal antropologian"

IXONE FERNANDEZ DE LABASTIDA JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN FUNDAZIOKO PRESIDENTEA

Emakume batek gidatzen du lehenengoz Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa: Ixone Fernandez de Labastida. Ataundarraren ekarpenak zabaltzarekin eta ikertzaile berrien ikerketak laguntzarekin batera, fundazioaren izaera zientifikoa sakontzea du helburu. Gasteiztarrak gogotsu ekin dio ibilbide berriari. Testua eta argazkiak: **Mirian Biteri.**

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak presidente berria du urritik: Ixone Fernandez de Labastida Medina (Gasteiz, 1979). Azken zortzi urteetan karguan aritu den Josemari Velez de Mendizabal Azkarraga ordezkatu du Antropologian doktore eta EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saileko eta Lan Harremanak zein Gizarte Langintza Fakultateko irakasleak.

Jose Miguel de Barandiaran fundazioko presidente.

Erronka handia aurretik, edo?

Bai, erronka bada horrelako fundazio bat zuzentzea; kulturgintzan edo antropologiaren ezagutzan aritzen den fundazio baten aurrean egoteak gainera testuinguru soziopolitiko eta ekonomikoaren menpe egotea eskatzen dizu. Krisi garaia gogorra izan zen fundazioarentzat, baina, hala ere, mantendu izan da; eta azken urteotan, Velez de Mendizabalek horren lerroak berreskuratzea lortu du; besteen artean, ikasketa beka. Nik ditudan erronken artean, nagusia fundazioaren izaera zientifikoa edo Barandiaranek aldarrikatzen zuen zientifikotasun horretan gehiago sakontzea izango da.

Kargu horretan jarduten duen lehen emakumea zara, gainera?

Bai, eta ohore bikoitza da niretzako. 1988tik hona lehendakaritzan egon den lehen emakumea izateak, alde batetik, ez nau harritzen; horrelako fundazio batean oraindik ere, beste esparruetan gertatzen den bezala, gizonezkoek badutelako lehentasuna. Hala ere, fundazioaren egitura, gaur egun, parekidea da. Ohorea da, batetik, nire ikerlerroetako bat berdintasunarekin lotutako gaiena delako; AFIT antropologia feministari buruzko ikertaldearen barruan nabil lanean. Eta bigarrenik, Barandiaranentzat ere oso garrantzitsua izan zelako emakumearen figura: lehenengo, bere amarena: eta gerora, Pilar bilobarena.

Karguaren aurkezpenean, "hein handi batean Barandiarani esker naiz antropologoa" aipatu zenuen. Zer eman dizu ataundarrak zure ogibidea bideratzeko?

Txikitan, hamar bat urte edo nituela, haren heriotza zela-eta, telebistan botatako ikus-entzunezkoa eta elkarrizketak ikusi nituen aitarekin. Antropologia zer zen ikasi nuen; liluratu ninduen berak egiten zuena, euskal mitologiari buruzko mundu magiko hori zelan azaltzen zuen.



Gerora, EHUn antropologia ikasketak egiten ari nintzela, Barandiaranen figura agertu zitzaidan beste ataundar baten eskutik: Joxe Martin Apalategi antropologoaren eskutik. Nire tesian eragin handia izango zuten haren ekarpenek: ikertzerako orduan zuen sistematizazioa, zurruntasuna edo galdetegia, tartean.

Araba aukeratu zenuen tesirako. 1984. urtetik, Mendialdeko zaldi abeltzaintzaren biziraupena eta moxal okelaren aurrean dagoen higuinari buruz egin zenuen tesia, ezta?

Hala da. Argi neukan Araban egin nahi nuela. Lizentziatura ikasketetan konturatu nintzen euskal antropologiak Arabako eta Nafarroako Mediterraneoko isurialdea ahaztuta zituela; euskal kulturaren definizioan ez ziren agertzen bertako bizimoduak. Hori horrela, Arabako Mendialdera heldu nintzen, ohiturak eta bertako bizimoduak indartsuago mantendu izan direlako. Han bertako zaldi arrazarekin egin nuen topo: eraikuntza kulturalari dagokionez, animalia horren bitartez lortu nuen bertako komunitatearen nortasuna ezagutzeari; eta eraikuntza ekonomikoaren inguruan, tokiko produktu bat aztertzeke aukera eman zidan.

Barandiaranen heriotzaren 25. urteurrenean, haren baloreen gainean idatzi zenuen. Zelan suertatu zitzaizun aukera hori?

Eskaintza polita izan zen fundazioak niri eta Barandiarani buruz nik baino gehiago zekitenegi egin ziguna. Oso omenaldi polita eta hunkigarria antolatu zuen urteurrenara begira Euskal Herri osoan; bereziki Barandiaranek Europarekin zuen lotura uztartu zen horretan. Ni bi baloretan oinarritu nintzen bereziki: batetik, XX. mende hasierako European arrazaren diskurtso arriskutsuetatik askatu egin zuela Euskal Herria; ordura arte, antropologia ikerketetan arraza hitza agertzen zen eta berak ezaugarri fisionomikoei ez ezik kulturei ere eman zien garrantzia eta euskal etniaz hitz egiten hasi zen. Bestetik, berak euskal kulturaren muina baserrian eta Atlantiar isurialdean jartzen bazuen ere, ez zuen inondik inora ukatzen Araban eta Nafarroan euskal kulturaren ereduak bazirela, eta ikerketak egitera bultzatu zuen jende asko. Bi balore horientatik eskerrak eman nahi izan nizkion omenaldian.

Orduan sartu zinen fundazioan?

Bai, omenaldi hura izan zen fundazioarekin izan nuen lehen harremana. Harrezkero, ikerketa



Fernandez de Labastida, Gasteizko seminarioan. M.B.

**"LILURATU NINDUEN EUSKAL
MITOLOGIARI BURUZKO MUNDU
MAGIKOA ZELAN AZALTZEN ZUEN"**

**"EZ ZUEN INONDIK INORA UKATZEN
ARABAN ETA NAFARROAN EUSKAL
KULTURAREN EREDUAK BAZIRELA"**

**"MARRAZKI BIZIDUNEN BITARTEZ,
BARANDIARANEN BIZITZA AZALTZEN
DUEN BIDEO-SORTA EGIN DUGU"**

bekaren epaimahaian parte hartu nuen, eta geroago, euskal folkloreak urtekariaren editorialean sartu nintzen.

1988an sortu zuten Barandiaranek berak eta Eusko Ikaskuntzak fundazioa. Zer asmoarekin?

Garai hartan, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria zen Barandiaran, eta ordurako kezkatuta zegoen berak egindako ikerketekin zer gertatuko ote zen. Egindako ekarpenak babesteaz gain, berak irekitako ikerketa lerroak ikertzaile berriei zabaltzeko beharra ere ikusi zuen; ez bera bakarrik, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako gobernua, hiru diputazioek eta Ataungo Udalak ere premiazko zat jo zuten fundazio bat sortzea.

Jendeak gaur egun badaki Barandiaran nor izan zen edo lan asko dago oraindik egiteko?

Barandiaranen figura nahiko zabaldua dago gure gizartean; agian, irudia lausotua dago iraganeko zerbait izango balitz bezala ulertzen dugulako, baina, egia da, bere ikasketak eta ekarpenak oso egunekoak direla. Esaten dute Barandiaran izan zela lehenengo ataundar unibertuala: alde batetik, garai hartako European pil-pilean zeuden ikerketa antropologiko eta arkeologikoen berri izan eta ikasi zituelako, eta gerora ere, hemengo ikasketak Europara eraman zituelako, bertako errealitatea ezagutaraziz. Bakarrik horregatik bere ekarpenek nahiko baliotsuak izaten jarraitzen dute egun ere gizartearentzat, orokorrean, euskal kultura eta historiaurrea ezagutzeko; eta, bereziki, diziplina horiek ikasten ari direnentzat. Hortaz, fundazioaren hasierako helburuak lortu dira, baina oraindik ere asko dago egiteko eta horretan gabiltza.

Zeregin horretan, hainbat proiektu dituzue esku artean; tartean, 1,2,3... Barandiaran egitasmoa. Zertan datza?

Fundazioak aspaldi zuen buruan bideo-sorta bat egitea publiko gaztearengana iristeko eta Hezimubi produktorearekin elkarlanean bi denboraldi egin ditugu: marrazki bizidunen bitartez, 102 urteko bizitza hainbat kapitulutan banatu izan dira, Barandiaranen bizitzaren zenbait pasarte aukeraturik. Lehenengo denboraldia bost kapituluz osatuta dago, eta erbestera arteko ibilbidea azaltzen da bertan. Abenduaren 3an, bigarren denboraldiarekin hasi ginen; asteartero, astero kapitulu bat botako dugu abenduaren 31ra arte, bere urtebetetze egunera arte. Oso bideo erabilgarriak dira gazteek ez ezik, adineko jendeak ere Barandiaranen irudia ezagutzeko.

Bestalde, Euskal Folklorearen urtekaria ere argitaratzen duzue...

Hala da. 1921ean argitaratu zuen aldizkariaren lehen alea Barandiaranek; ehun urte betetzear dago. Helburua euskal antropologia eta arkeologiari lotutako ikerketen emaitzak plazaratzea izan da beti; baina, orain dela lau urte, eraberritzea erabaki genuen. Erredakzio taldea aldatu genuen, Abel Ariznabarreta da egun zuzendaria, eta formatua ez ezik, edukiak ere eguneratu izan dira. Gaur egungo euskal gizarte eta kulturaren inguruko gaiak aurkitu daitezke: gaiak aukeratzen ditugu eta adituei idazkiak eskatzen dizkiegu.

Horrez gain, beka deialdia ere berreskuratu duzue...

Testuinguruak markatuta, hainbat urteko etenaldiaren ostean, aurreneko patronatu kideek eta lehendakariak lortu zuten berriro ere martxan jartzea. Beka garrantzitsua da aukera ematen duelako antropologia eta arkeologiarekin lotutako urtebeteko ikerketa sakonak egiteko. Ezagutza eremu hauetan ikertzen hasi direnei lehenetsua eman diegu azken deialdietan.

Askotariko gaiak lantzen dituzten proiektuak laguntzen dituzue. Esaterako, 2016an, 'Ardoaren

sare-e(t)nologia Arabar Errioxan' egitasmoa. Araba erreferente al da gaur egun?

Asko poztu ninduen proiektu horrek irabazteak; oso lan garrantzitsua da bi gipuzkoarrek egindakoa. Araba, lehen esan dudan bezala, nahiko ahaztuta egon da euskal antropologian, Atlantiar isurialdera begiratu dute beti; egia esan, herrialdearen egitura geografikoa eta hizkuntzaren errealitatea bestelakoa da. Baina, Barandiaranek erakutsi zigun Euskal Herriko atlas etnografikoa osatze aldera bere galdetegi zonalde horretan ere aplikatu behar zela. Eta Arabako Errioxari buruzko lan honekin herrialdea ezagutarazi da.

Amaitu aurretik, zer gaietan gustatuko litzaizuke sakontzea?

Buruan gai asko ditut, baina denborarik ez horiei heltzeko. Baina, egun banago antropologia feministarekin; asko interesatzen zaidan gaia da hori. Horrez gain, tesitik eratorritako gai bat garatzea gustatuko litzaidake: elikaduraren antropologia. Jakiekiko dugun higuina edo zaletasuna nondik datorren, elikaduraren atzean dauden irizpide kulturalak eta horrelakoak. Gai horri berriz ere heltzea gustatuko litzaidake. ■



ERAKUSKETAK

Elena Mendizabal. Eskultura

>2020.05.03

Muntadas. Elkarrekiko loturak, interconexiones, interconnessioni

>2020.01.12

Oroi. Queda mucho pasado por delante. Artium Bilduma

>2020.01.05

JARDUERAK

ARTISTAK GUREAN

Joxerra Melguizo

12.11 19:00

IRAKURLE TALDEA

Mikel Ayerbe - *Twist*. Arkaitz Cano (euskaraz)

12.12 19:30

ABENDUKO ZUBIA

Lantegia *Lurrean eta horman*

12.6>8 11:00 > 13:30 + 17:30 > 19:30

Artium osorik bisita gidatuak

12.6>8 12:30 + 18:30

EGUBERRIKO JARDUERAK

Familientzako Gunea

2019.12.26 > 2020.01.04

Lantegia *Eguberriak, gauzak eta gauzak*

Egutegia eta ordutegia: www.artium.eus

GAZTEENTZAKO LANTEGIAK

Musika hedatua. Antton Goikoetxea

12-18 urte bitarteko

Inguratzen gaituen soinu-paisaiatik

abiatuta musika sortzen

12.21 17:00 > 19:00

Argibide gehiago:
www.artium.eus

Greta



IRATI MARAÑÓN
ITZULTZAILEA

Lasai, ez dizuet-eta klima aldaketaren aurkako borrokaren erreferente bilakatu den/duten Greta horretaz hitz egingo, nahiz eta egunotan bolo-bolo dabilen guztion ahotan, Madrilen egiten ari diren goi bileraren harira.

Hizpide izango dudan Greta ez da –ez horixe– Garbo abizeneko hura, Hollywoodeko izar mitiko bilakatu zena. Bide batez, suediarrek biak ala biak.

Greta Fernandez da aipatu nahi dizuedana, eta aipatu nahi dizuet, hain zuzen, ukituta utzi nauen film bateko protagonistaren rola jokatzeko. *La hija de un ladrón* filmaz ari naiz.

Gaztea da Sara, oso gaztea, eta seme bat dauka. Lan prekarioetan aritzen da, eta haren egoera berean dauden amentzako pisu partekatu batean bizi da. Semearen aita ez da tipo txarra. Umeaz arduratu nahi du, bai, baina ez du bikote-harremanik nahi Sararekin; Sarak bai, ordea. Gainera, neba bat dauka, egoitza batean bizi dena. Izan ere, aita, filmaren izenburuko lapurra, kartzelan egon da eta ezin izan du seme-alabez arduratu. Baina, halako batean, kartzelatik irtengo eta hankaz gora jarriko du Sararen egunerokotasun hauskorra. Itxaropen zapuztuak, hiri handi bateko ingurumarietako bizimodua, gure gizarteak bazter uzten dituenen ahaleginak... Horiek guztiak kontatzen ditu filmak, baina aspaldi ikusten ez nuen sinesgarritasunarekin. Eta horretan biziki laguntzen du Gretaren antzezpenak. Sararen amorrua, grina, borroka, sufrimendua, etsipena... helarazten dizkigu. Orain, eta Sararen pertsoniarekin enpatizatu ostean, zera dagokio ikusleari: pentsatzea zer demontre egin dezakeen gero eta desorekatuagoa den mundu hau abegikorrago eta justuago bilakatzeko. ■■■

**GAZTEA DA SARA, OSO
GAZTEA, ETA SEME BAT
DAUKA. LAN
PREKARIOETAN
ARITZEN DA...**

**ITURRIETA
SAGARDOTEGIA**



Bº Arraga, 2 / Aramaio
☎ 945 44 53 85 / 685 72 15 93
jj.iturrieta@Yahoo.com
iturrietasagardotegia.blogspot.com.es



TXOTX EGIN!!



Kuartango
SAGARDOTEGIA

Servicio de autobús
Zuhatsu-Kuartango 21
t.699 747 730 · 945 362 683



Servicio de autobús
TREBIÑU Sagardotegia
945 244 852-657 736 599 · ASKARTZA-TREBIÑU

Arabako sagardoa!





IRUDITAN

Zazpi idazle arabarren pasarteen Irakurraldia

Euskararen Nazioarteko Eguneko ospakizunak aitzaki, asteroko albiste zurrunbilotik fikziorako jauzia egin zuen pasa den astean Arabako ALEAk. Iban Zaldúa, Karmele Jaio, Katixa Agirre, Mikel Ayllon, Beñat Goitia, Elisa Rueda eta Edu Zelaieta idazle arabarrek idatzitako eta Jon Gil ilustratzaileak sortutako irudiek lagundutako pasarteekin osatuta dagoen liburuxka aurkeztu zuen. Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean egindako ekitaldian, zazpi idazlanen irakurraldi publikoa egin zen. Binaka testuak irakurtzeko ardura hartu zuten politika, kultura, kirola eta gizarte arloko hamalau lagunek. **Argazkiak: ALEA.** ■■■■



Bidali zure argazkiak testu labur
batekin: erredakzioa@alea.eus

"Langile klasea babesteko beharra ikusi genuen"

IÑAKI LOPEZ DE FORONDA ETXEBIZITZAREN SINDIKATUKO KIDEA

Etxebizitzaren arazoari modu kolektiboan erantzutera dator sortu berri duten Etxebizitzaren Sindikatua, "eskola politikoa sortuz".

E. UGARTE/E. LANA O GASTEIZ

Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko beste egitasmo bat martxan jarri dute Gasteizen: Etxebizitza Sindikatua. Langileen autonomia eta elkartasuna oinarri dituen proiektua mahai gainean jarri dute hainbat gaztek. Sindikatuko kide Iñaki Lopez de Foronda Alea FM saioan izan da.

Zerk eraman zaituzte Etxebizitzaren Sindikatua sortzera?

Sindikatua sortzen da Gasteizko proletalgoak etxebizitzarekin dituen arazoei modu kolektiboan aurre egiteko. Eta lehenengo pausoa litzateke hau guztia bere testuinguruan kokatzea. Guk egiten dugun analisia da azkeneko hamar urteetan orokorrean Europako langile klaseak sufritu duela bizi baldintzen okertze bat, eta ofentsiba guzti horren aurrean elkar babesteko beharra ikusi genuen.



Iñaki Lopez de Foronda da Etxebizitza Sindikatuko kidea. [THEARTOFORGANISINGHOPE](#).

Zergatik sindikatua eta ez beste egitura bat?

Sindikatu hitza erabili dugu berreskuratu nahi dugun kontzeptu klasiko bat delako, eta beste zentzu batekin plazaratu nahi duguna. Gaureguneko sindikatuen kritika bat egiten dugu; batetik, ez dutelako langile klase guztiaren interesak defendatzen, eta, bestetik, ikusten dugulako asimilazio prozesu bat izan dutela eta nahi dugu berreskuratu berriz sindikatuaren zentzu politikoa.

Birjabetze Kolektiboaren ondorioz sortu da, ezta?

Joan den abenduan jarri genuen martxan, eta hilabete hauetan hainbat hausnarketa izan ditugu. Horren bitartez etxebizitzaren problematika zentzu zabalago batean ulertu dugu, aholkularitza bila zetorren jende horren guztiarengatik hainbat arazo identifikatu ditugu, eta ikusi dugu bestetik gure antolakuntza formak ez zituela gure helburuak betetzen. Benetan lan kolektibo guzti hori aurrera eramateko markoa behar genuen, eta sindikatuaren formarekin asanblada bat sortu dugu etxebizitzaren arazo desberdinei aurre egiteaz gain eskola politiko bat sortuz aldi berean.

Nola funtzionatzen du sindikatuak?

Igande arratsaldero asanblada bat izaten dugu, eta bertara gerturatzen da jendea arazo ezberdinekin. Bertan ikusten da zein modutan egin ahal zaion aurre; baditugu tresna batzuk garatuta, izan aholkularitza juridikorako,

"SINDIKATU HITZA ERABILI DUGU BERRESKURATU NAHI DUGUN KONTZEPTU KLASIKO BAT DELAKO"

izan mobilizaziorako, manifestazio baterako edo etxe bat kontpontzeko... Zenbaitetan beste eragile batzuk izan daitezke aproposagoak eta horretara bideratzen ditugu, baina normalean saiatzen gara gure gaitasunekin aurre egiten.

Etxebizitzaren alorrean, zeintzuk dira arazo nagusiak Gasteizen?

Azken urteetan, Euskal Herrian kaleratzen zenbakiak jaitsi egin dira estatuko beste tokiekin alderatuta, baina aldaketa ere egon da horretan. Duela zortzi urte kaleratze gehienak hipotekak ezin ordaintzeagatik gertatzen ziren; eta orain, berriz, Gasteizen esate baterako, alokairu-kontratua ezin ordaintzeagatik ematen dira. Erroldarekin ere arazoa dago hirian, erroldatzeko ezintasunagatik, askok eta askok erosi behar dute erroldatzeko eskubidea. Askotan ere etxearen alokairua ez berritzea gertatzen da eta familiak arazo handiarekin uzten dituzte. Beste arazo bat izan daiteke Etxebizitzaren Ikuskaritza Teknikoa ez pasatzea; batez ere Alde Zaharrean gertatzen ari da hori, hain justu baliabide ekonomiko gutxien duen jendearen artean.

Bestetik, Gasteizen 10.000 etxebizitza huts daude.

Egoera hori egonda, etxe horiek berreskuratzea litzateke irtenbidea, eta horien erabilera langile klasearen eskuetan uztea.

Bestelako eredurik izan al duzue egitasmoa martxan jartzeko orduan?



Dozenaka pertsona etxebizitza eskubidearen aldeko manifestazioan. @GASTEIZENA


Bi erreferente nagusi ditugu: Katalunian garatu diren etxebizitza sindikatuak edo taldeak, guk egiten dugun antzeko zerbait planteatzen dutelako. Nahiko modu masiboan ari dira hedatzen,artzelona metropolian ia auzo guztietan daude, eta gaitasun handia dute desjabetzeak gelditzeko edo negoziazioak lortzeko jabeen eta maizterren artean. Bestalde, jarraitzen dugu ere Euskal Herrian gertuago dugun filosofia bat, autodefentsa sareena; Iruñeko langileen autodefentsa sarea adibidez, modu auto-antolatuan ari dira lanaren esparruan garaipenak lortzen.

Inor Ez Etxebizitarik Gabe bezalako beste mugimendu batzuk ere ari dira lanean; babesten dituzue?

Ekimen hori gehiago zentratzen da Udalari exijentzia batzuk planteatzen, eta hori ez da gure egiteko modua, baina azken batean etxebizitzaren inguruan arazo larri bat dagoela agerian uzten dute. Ekimen ezberdinak egotea positiboa da. Nahiz eta gauzak egiteko moduak desberdinakizan, elkarlana ere positiboa da eta espero dugu balio izatea gaia sozializatzeko eta presio minimo bat egiteko.

Asanblada bitartez funtzionatzen duzue. Edonork parte hartu dezake?

Asanblada bideratuta dago batez ere edozein arazo duen jendeari edo laguntzeko prest dagoen edonori. Gasteiz Txikin batzen gara igandero, 17:00etan, eta edonor agertu daiteke.



ESANAK



KOLDO MARKINEZ

SAGARDOGILEA

Iturria: Berria

"Badakigu non gauden eta zein den egoera; Trebiñu kondentua da hau"



IRATI MUJIKA

ARBEL KOOPERATIBA

Iturria: GorbeiaBerri

"Egunerokoan behar diren gauzak Aramaion bertan eskuratzeko aukera eskaintzen dugu"



ELENA CERCADILLO

SORGINENEA

Iturria: Hala Bedi

"Dena esanda dago. Orain hitzetatik ekintzetara pasa behar dira erakundeak"

ZENBAKITAN

Energia

Iberdrolak eta EEEK sortu duten

Aixe Indar konpainiak EAEko haize-sorkuntzako parkea berraktibatu nahi du, bi urteren buruan. Une honetan, neurketak egiten eta kokapenak aztertzen ari da, eta urtebete barru bere lehen parke eolikoa jartzeko proiektu bat izatea espero dute. Araban, Labrazan eta Iturrietako Mendietan, egingo dituzte lehen neurketak, eta konpainiak horretarako baimenak eskatzeko prozedura abiatu du jada. EEEKo zuzendari nagusi Iñigo Ansolak azaldu duenez, 2030erako energia berriztagarrien kontsumoa %30eraino handitu nahi dute.

%30

76

Lanpostu

GOFek 2018. urtean onetsitako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren (EPE) probak datorren urteko ekaina eta urria bitartean egingo dira. Eta izena emateko epea 2020ko lehen lauhilekoan izango da. EPEak 76 lanpostu eskainiko ditu. Horietatik 30 lanpostu desgaitasun-begiraleei dagozkie, 29 gizarte-lanari eta 17 psikologiari. Deialdi berezi batean, adimen desgaitasuna dutenentzat erizaintza-laguntzaile plaza bat ere lehiaketara irtengo da.

4.678

Partaide

Araba Encounter informatika zaleen topaketaren seigarren edizioan 4.678 lagun bildu dira, espero baino gehiago. Antolatzaileek adierazi dutenez, aurtan, "arakasta handia" izan du ekimenak, bai hitzorduan parte hartu duten lagunei dagokionez, —itxaropen baikorrenak %50 gainditu dituelako— bai kokapen berriaren erosotasunagatik. Gasteizko Lakua auzoko gizarte etxean egin dute, aurrenekoz, Araba Encounter.

Aurrekontuak onartu dituzte Asparreneko eta Gaubeako Udalek

Asparrenak lau milioi euro baino gehiagoko aurrekontua izango du 2020an; Gaubean, berriz, 1,7 milioi euroko aurrekontua. Inbertsio nagusiak, Asparrenan, Santsaerrekako urbanizazioa eta industrialdeko errepideen hobekuntza dira. Gaubean, Espejon paddle pista bat egitea eta Uribarri-Gaubean karabanentzat aparkaleku bat egokitzea.



4.089.973,37 eurokoa izango da Asparreneko aurrekontua 2020rako. ALEA

Basakatuaren hainbat aztarna topatu ditu Naturayalak Aiaraldean

Naturayala taldeak jakinarazi du azken urteotan basakatuaren (*Felis silvestris*) aztarna ugari topatu dituztela Aiaraldeko zenbait txokotan, bereziki ingurune menditsuetan eta biztanleria gutxi duten herrietan. Arazo asko ditu bere kontserbaziorako basakatuak. Habitat galera dago alde batetik. Gainera jazarpen gogorra jasan du gizakiaren aldetik oilategietan egindako erasoengatik.

Emakume baten bortxaketa salatzeke kontzentrazioa Oionen

Oiongo Udalak kontzentrazio isila egin du asteartean, udaletxearen aurrean, herrian jazotako sexu-eraso matxista salatzeke. Izan ere, astelehenean, emakume batek Ertzaintzaren aurrean salatu zuen gizon batek bortxatu zuela etxebizitza batean. Gainera, gizonak mehatxu egin zion eta zaplazteko bat ere eman zion. Poliziak ustezko erasotzailea atxilotu zuen.



ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
2020/2021 ikasturtea

LEARNING FROM REALITY

INGENIARITZA

ORONA IDEO ABENDUAK 14
LARUNBATA 10:30

ARRASATE URTARRILAK 11
LARUNBATA 10:30

BILBO URTARRILAK 15
ASTEAZKENA 18:00

GOIERRI OTSAILAK 8
LARUNBATA 10:30

EKINTZAILATZA

OÑATI ABENDUAK 19
OSTEGUNA 18:00

BIDASOA ABENDUAK 19
OSTEGUNA 18:00

BILBO OTSAILAK 1
LARUNBATA 11:00

ENPRESA KUDEAKETA

BILBO ABENDUAK 14
LARUNBATA 11:00

OÑATI ABENDUAK 19
OSTEGUNA 18:00

BIDASOA ABENDUAK 19
OSTEGUNA 18:00

HEZKUNTZA

ESKORIATZA ABENDUAK 14
LARUNBATA 11:00

BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

KOMUNIKAZIOA

ARETXABAETA ABENDUAK 14
LARUNBATA 11:00

BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

HUMANITATEAK

BILBO OTSAILAK 8
LARUNBATA 11:00

GASTRONOMIA
— Basque Culinary Center

DONOSTIA ABENDUAK 14
LARUNBATA 10:30

Etorriko zarela jakinarazi!
www.mondragon.edu/prest

Egunean minutu bi jolasean

Azken asteotan, 45.000 bat lagunek jokatzeko egunero Egunean Behin euskarazko jokora; larunbatean, Kike Amonarrizek gidatuko du mugikorretarako aplikazio honen inguruan Azpeitian antolatu duten finala.


MIRIAN BITERI

Egunean Behin euskarazko joko ezagunaren finala jokatu da lehenengoz larunbatean, abenduak 14, Kulturaz kooperatibak Azpeitian kudeatzen duen San Agustin kulturgunean. Lehiaketa horretan 150 jokalarirentzako tokia baino ez da egongo, eta hortaz, denboraldi honetan jokoan bertan lehen postuetan sailkatu direnei gonbidapenak luzatu ondoren, gainerakoentzako izena emateko prozesu bat ireki eta zozketa egin behar izan du Codesyntax enpresa antolatzaileak.

Finalaren mekanika zuzenekoak eta aldibereketasunak izango du garrantzia: txanda bat baino gehiago izango da, eta jokalaria guztiek aldi berean galdera berdinak erantzun beharko dituzte. Aurkezle paregabea izango du ekimenak, gainera: Kike Amonarriz. Sari nagusia Gabonetako otar eder bat izango da irabazlearentzat.

10 galderei erantzun

Oso dinamika errazeko jokoa da Egunean Behin. Bakarka edo taldean jokatzeko prestatuta dago, euskaraz; izenak berak dioen bezala, egunean behin partida bat jokatzeko aukera izango du jokalaria 10 galderei ahalik eta azkarren erantzunez. Asmatutako erantzun



Tribial estiloko galdera-erantzunen jokoa da Egunean Behin. M.B.

kopuruaren eta pasatako denboraren arabera, puntuak lortuko ditu; eta, puntuen arabera, asteko sailkapenena gora edo behera egingo du. Astelehenetik igandera bitartean, irabazten duenak sari bat jasoko du.

Galderak askotarikoak dira eta iturri ezberdinetatik automatikoki daude hartuta. Euskarazko Wikipedia izan da nagusienetakoa, baina bestelakoak ere erabili izan dira; esaterako, argazki geolokalizatuen gunea izan zen Panoramilio. Ezin ukatu aplikazio honen arrakasta, azken asteotan 45.000 lagunetik gora ari direlako jokatzeko egunero.

Egunean Behin ez da larunbateko finalarekin

amaituko: hurrengo bi asteotan ere iraugo du. CodeSyntax enpresak garatutako aplikazioaren asmatzaile Luistxo Fernandezek esanetan, "azken asteotan lortutako erakarpenaren ondorioz, pentsatu dugu ondo egon zitekeela Gabon jaietan ere, behintzat egun batzuetan, jai eta familia giro horretan ere jokatzeko aukera eskaintzea".

Urtarrilaren 27an, hirugarrena

Hortaz, bigarren denboraldiko azken astea abenduaren 29an ixten den astean izango da, eta jaiekin lotutako galdera sorta bereziak izango dira. Gero eten bat egingo dute, eta urtarrilaren 27an itzuliko dira berriro ere jokoen hirugarren denboraldiarekin. ■■■

Zorionak eta urte berri on!



ETEekin
INFORMATIKA INTEGRALA

by **oreka i.t.**
corporate balance

OREKA IT

Vitoria-Gasteiz (Araba) · 945 067 219
orekait@eteekin.eus · www.eteekin.eus



zerbitzua
cuskaraz



Olibari bihurtu da bertsolaria

Lantziegoko Erroiz errotan ekoiztutako Abuelari izeneko litro erdiko botila hamabost euroan salduko dute, eta ateratako %30 Arabako Errioxako bertso-eskolara joango da. Hala erabaki du Jon Maiak.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Bertsolari baten familiaren historia eta familiako olibadi baten historia lotu dituzte Lantziegon, aurrenekoz. Bat-egite horren ondorioz sortu dute Abuelari izeneko litro erdiko olio-botilaren tirada mugatua: bi mila ale. Jon Maiaren amonari erreferentzia egiten dio markak eta Lantziegoko Erroiz olio-errotan ekoizten duten olio artisaua du oinarri.

Aurki jarriko dute salgai, hamabost euroan, eta aterako duten diruaren %30 Arabako Errioxako bertso-eskolara bideratuko dute. Hala erabaki du Maiak, iragan astean Lantziegora egin zuen bisitan. Bertan aukera izan zuen, Mikel Izagirreraren eta Dounia El Kouissiren eskutik, Arabako Errioxan egiten den arroniz motako olioaren ezaugarriak ezagutzeko, produktua bera dastatzeko eta olibondoetatik sasoiak dauden olibak jasotzeko.

Familiako olibadiak

Giro gozoan egin zuten Erroiz errotaren Olioaren I. Eguna; familia eta lagunak izan ziren, bertsolari gipuzkoarra eta Itziar De Alava Lantziegoko alkatea. Ekitaldiarekin, Arabako Errioxako olioaren balioa nabarmendu nahi dute, eta "irabazi asmorik gabeko elkarte batentzat ere dirutxo bat



Abuelari marka aukeratu du Maiak E.U.

batzea". Urtero, Euskal Herriko pertsona ospetsu bat gonbidatzeko asmoa du Erroiz olio-errotak bere etxera.

Familiaren olibadietan olibak jasotzen dituzten bitartean, Izagirrek azaldu du tradizioz Arabako Errioxan olibondoek mahastia inguratzen zutela, eta ehunka olibondo zegoela: "Bere garaian, Lantziego zen Arabako Errioxan oliba gehien zuen herria". Gehienbat, herriko dolareagatik mantendu da laborea: "Lantziegok dolare tradizionala dauka, Udalarena,

ARABAKO ERRIOXAKO OLIOAREN BALIOA NABARMENDU NAHI DUTE ERROIZ OLIO-ERROTAKOEK

oraindik funtzionamenduan dagoena, eta horri esker mantendu da oliba. Beste faktore garrantzitsu bat da familiek beren olibadiak zaindu eta gorde dituztela; nahiz eta lurrik ez izan, badute olibadia".

Hala, Konstituzioaren zubian, ohikoa da familia guztiek bere olibak jasotzera joatea. "Errotara ekartzen dituzte eta olio a eramaten dute; oliba mantendu da, ez motore ekonomiko bezala baizik eta familian kontsumitzeko". Hala, 60. hamarkadan, Arabako Errioxako beste herrietan ehunka olibondo sustraitik atera ziren bitartean, Lantziegon, Moredan eta Oionen asko mantendu zituzten.

Bertsoak eta olibak

Oliba batzuk jaso eta gero, menditik bueltan, Arabako olibondoaren historia eta bertsolariaren familiarena nola elkartu diren azaldu diote Maiak eta Izagirrek ALEARI. Izagirrek eskatu zion bertsolariari, Erroizen berri emateko. "Nik ez nuen ezagutzen bera –esan du Maiak–; eta azaldu zidan familia bat direla olio a egiten dutena, artisau olio a, produkzio txikian, eta jendeak ez dakiela hemen Araban olio a egiten denik; eta nahi zutela, prest baldin banangoen, nire bidez ezagutzera ematea". Erroiz errotako familiaren proiektua gustatu zitzaion bertsolariari. "Gustatzen zaidalako nola

egiten duten lan, eta familiako identitateari eta lurrari lotuta dagoelako. Arabako Errioxa Euskal Herria da Ondarru, Zumaia edo Leitza bezainbat, eta oso interesgarria iruditzen zait gure kultur zentralismotik irten eta periferian egiten diren gauza hauek ezagutzera ematea", esan du Maiak.

Maiarengana jo zuten Erroiz erroztako lagunek bertsolariak bere amonari egindako bertsoak ezagutzen zituztelako: "Nire familiak izan zituen olibondoak aipatzen ditut, Francok kendu zizkien gerra ostean, eta poema horretatik nirekin gogoratu ziren". Hartara, olioaren tirada berezi baten izena pentsatzeko eskatu ziotenean, bertsolariari Abuelari izena jartzea bururatu zitzaion: "Abuela hil zenean bere bilobek olibondo bat landatu genuen bere etxe aurrean, Zumarragan, eta orain olio bati bere izena jarri diogu. Abuelari izena euskal atziki horrek euskaldundu egiten du, eta baita ere integrazioaren istorio bat eta identitate bat adierazten du".

Erroiz olio-errotarentzat urte onaren ginga da Maiaren parte-hartzea. Izan ere, Izagirrek aitortu duenez, oso ondo joan dira gauzak lehendabiziko urtean: "Olio probatzen duen jendea asko gustatu zaio desberdina delako, jendea ez dagoelako ohituta arroniz motako olio dastatzera". Inguruko nekazariak ere aurreko urteetan baino konfiantza gehiagorekin hurbiltzen ari dira Lantziegoko erroztara olibak eramatera, eta olibari gehiago jasotzen ari dira. "Oso urte positiboa izan da, eta orain proiektua sendotu nahi dugu eta merkatua zabaldu". ■



Izagirre eta Maia, Lantziegoko olibadian, pasa den astean. EU



Izagirre, Maia eta El Kouissi, Erroiz erroztan, Lantziegon. EU



Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak



**Gabonetako eskaintza bereziak,
enpresa oparietan eta
publizitate euskarrietan**

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Emaila: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es

Fantasiatzko piztiaren eremua

Basiliskoari buruz Euskal Herrian ezagutzen den elezahar bakarrenetakoa da Urrialdokoa; antzinako herritik eliza erromanikoaren aztarnak bakarrik geratzen dira, eta piztiaren putzua ondoan.

ARGAZKIAK: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Gutxi dira Euskal Herrian basiliskoa bezalako izaki mitologikoa jasotzen dituzten kondairak, eta horietako bakarrenetakoak Araban daude. Ezagunena Urrialdoko herriko putzuan bizi omen zen piztia da, baina bazegoen beste bat –ezezagunagoa– Lupierro herriaren inguruko bentan, Quintanilla de la Ribera, Argantzonetik gertu. Eremu biek ezaugarri bera dute: horietan ez da etxerik zutik gelditzen.

Urrialdon, alta, tenplu erromanikoaren hormak eta arkuak zutik diraute, galsoroek inguratuta, eta pintaketekin "apainduta". Beste margo preziatuago batzuk gorde zituzten bere garaian Urrialdoko Erremedioen Amaren basilizaren hormek, 1936. urtean aurkitu zituzten pintura gotikoak hain zuzen; baina denboraren eta utzikeriaren eraginez, guztiz desagertu ziren.

Euskal Herriko bandokideen arteko gerrak tarteko, XIV. mendean pixkanaka husten hasi zen Urrialdoko; eta XX. mendean etorri zen herriaren behin betiko gainbehera. Izan ere, 1935. urtean alde egin zuen bertatik azken biztanleak, familiako etxea sute batean kiskali eta gero. Hurrengo urtean erre zen ere basiliza.

Halere, elezaharrak basiliskoari egotzi dio aspalditik herriaren gainbehera. Katu bat bezain handia da basiliskoa, "burua oilarraren gisakoa du baina horzduna, gorputza sugearena bezalakoa, hegoak arantzez beteak eta isatsa lantza bezain luzea eta puntazorrotza". Izan daitekeen animaliarik beldurgarriena eia da, eta bere begiradak gauzarik txarrenak egin ditzake: landareak zimeltzen ditu, arbolak ihartzen, hegaztiak hegan doazenean erorarazten eta gizakiak hiltzen ditu.

Oilar zaharrak hil zuen

Kondairak dio Urrialdoko bizilagunak basilizaren ondoko iturburuan ura edatera hurbiltzen zirenean basiliskoa azaltzen zela eta hil egiten zituela. Horregatik, herritik alde egitea erabaki zuten gehienek. "Egun batean, ordea, ia lumarik ere geratzen ez zitzaion oilar zahar bat inguratu zen putzura. Basiliskoa azaldu eta begira geratu zitzaion; oilar zaharrak, ordea, begirada itzuli zion. Horrela egon ziren une batez. Orduan, oilarrak kukurruku egin zuen eta basiliskoa harri

BANDOKIDEEN GERRAK TARTEKO, XIV. MENDEAN, HUSTEN HASI ZEN URRIALDO

bihurtu zen eta urpean hondoratu zen".

Kondairaren arabera, harrezkero ez dute basiliskorik ikusi inguruan, baina alde egindako biztanleak ez ziren inoiz itzuli. Urrialdoko inguruko herrietan basiliskoaren elezaharra erabili dute maiz aitona-amonek bilobak Urrialdoko iturritik urruntzeko.

Martiodatik bisita

Martiodatik iparraldera, hiru kilometrorra, Urrialdoko elizaren eta kiskalitako etxe bakarraren hondarrak ikus daitezke. Eremu hori ezagutu nahi izanez gero, txango ederra eta lasaia egin daiteke Martiodatik bertatik, Oto Barrenetik edo Mendozatik. Bide batez, Arrato mendilerroko inguruak zeharkatzeko aukera ere baliatu daiteke Urrialdoko bisita.

Martiodan bertan, gainera, Arabako Hurtado de Mendozatarren dorretxea dago, hain zuzen 1984an Eusko Jaurlaritzak kultura ondasun izendatu zuen dorretxea, bere balio historiko eta arkitektonikoa aintzat hartuz. Aitzitik, kontserbazio faltagatik, 2015ean, barrualdeko egurrezko egitura erori egin zen, baita dorrearen teilatu zati bat ere. Arabako Foru Aldundiak, 2016. urtean, hasi zuen eraikina birgaitzeko obrak egiten, eta 2018. urtean amaitu zituen horiek. ■



Urrialdo

Kuadrilla: Gasteiz.

Udalerrria: Gasteiz.

Biztanleak: 0. Egun, Martiodako kontzejuan dago.

Bitxikeriak: 1967. urtean, Eneolitiko eta Brontze arteko aztarnak aurkitu zituzten Urrialdoko eremuan.

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozketak

Irabazleak:

Bi pertsonarentzako gosaria Artepanen: Lore Barandiaran.
6D ekografia Gasteizko Askabide Klinikari: Noelia Cabezas Olcoz.



Parralen bazkaria

Bi lagunentzat

ALEAk bi lagunentzako bazkari begetariano bat zozkatuko du Gasteizko Parral tabernan, astean zehar bazkaltzeko. Zozketan parte hartzeko, eman izena abenduaren 31a baino lehen. Urtarrilaren 10eko aldizkarian jakinaraziko dugu irabazlearen izena.

POSTONTZIA

BIDALI ZURE MEZUA: www.alea.eus/zorionagurrak



Ilune Basterra Txurruka

Gasteiz

Abenduak 13.

Zorionak Ilu!!! Urte berri bat hastear maiti, eta beste urte batez, zurekin dantzan jarraitzen dugu. Ze polita zaren Ilu eta ze polita den zu gertu izatea eta zure irribarreaz gozatzea. Emozioz eta abenturaz betetako urtea izan dadila aurretik duzun hau. Segi bizitzakin dantzan maiti. Maite zaitugu!!!!



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak/



A2

**Antxeta
Irratia,
hegoak zabalik
Euskal Herri
osora**

Donostia 105.8 Mhz | Bilbo 91.4 Mhz
Gasteiz 90.4 Mhz | Iruña 106.70 Mhz

AGENDA Abenduaren 13tik 19ra

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Oreka Tx

Aitzina Folk jaialdiaren barruan. Alos Quartet taldea, Aukeran dantza konpainia eta Amaia Elizaranekin batera.

Ostirala 13, 20:30ean, Principal antzokian.

GASTEIZ Maria Rivero & Tribu Banda

Eskilarapeko Soinuak zikloaren barruan.

Osteguna 19, 19:30ean, Falerinan.

BERTSOLARITZA

ARAMAIO Bertso saioa

Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio bertsolariekin.

Ostirala 13, 19:30ean, kultur etxean.

ANTZERKIA

OKONDO 'Bakean dagoena bakean utzi'

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai artisten eskutik. Euskara eta generoa ardatz dituzten bakarrizketak.

Igandea 15, 18:00etan, kultur etxean.

GASTEIZ 'Högeitavat'

Iñigo Astiz eta Mikel Ayerberen emanaldia. Poesia da saioaren muina, baina soineko eszenikoa jantzi diote proposamenari egileek, eta antzerkia, hitza eta performancea batu dituzte.

Igandea 15, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.



GOIENA

GASTEIZ Trigger

Aretxabaletako Eñaut Zubizarreta txelo-jolearen kontzertua, GEU elkartearen eskutik. 'Esku bi, hamar hatz' lehendabiziko diskoko kantak aurkeztuko ditu; biolontxelo jatzeko modu berritzaileak bilatu ditu musikari gazteak.

Asteartea 17, 20:30ean, Parral tabernan.

HAURRAK

GASTEIZ Magia ikuskizuna

Kidam magoarekin ikuskizuna eta tailerra, Geu elkartearen eskutik. *Igandea 15, 17:30ean, Toki Eder ikastolan.*

BESTELAKOAK

OION Liburu azoka

Ramiro de Maeztu ikastetxeak antolatuta. Musikari, idazle eta sortzaileak elkartuko dira.

Ostirala 13, egun osoan zehar.

GAUBEA 'Harriak kontatu didatena'

Ane Gebara ipuin kontalariarekin. Gazte eta helduentzako ikuskizuna.

Ostirala 13, 19:00etan, liburutegian.

GASTEIZ Irakurle Kluba

Angel Erro idazlearen *Lerro etena* izango dute solasgai.

Osteguna 19, 19:30ean, Ignacio Aldekoa kultur etxean.



Jimmy jazz gasteiz

ABENDUA

- Os. 13** CARMEN BOZA + FEDERICO SALVATI
- Lr. 14** LOS ZIGARROS
- Os. 20** JOSEBA TAPIA.
- Lr. 21** GREEN VALLEY #POSTJAIA DJ LORO
- Ot. 26** CAROLINA DURANTE + VENTURI
- Ar. 31** POTATO + PARADIXO #GABONZAHARRA

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

ZIZZTU BATEAN

eskaintza onenaren bila



Zatoz Euskaltelera



200

MEGA



20GB

DEI
MUGAGABEAK



AISIA

TBa

ANDROID 4K

14'9€
/hil
6 hilabetez

Kontratatu hemen
EUSKALTEL.EUS | DENDAK | 900 840 243



euskaltel



Araba Kalitatea

Arabako elikagaiak: %100 kalitatea, %100 zaporea

